

telebista ♦ irratia

Italia-
Danimarka
ETBn

ETB1 • 00:05etan

Datorren urteko Eurokoparako sailkapen faseko partidu erakargarria eskainiko du Euskal Telebistak: Italia-Danimarka.



gaurko filmak Ane Muñoz

■ EL DESTINO DE SISSI.

Ez da maila handiko filma, baina, gaurko iragarri dituzten film zozoen artean onargarrietakoa da, gutxienez entretenigarria baita eta jauregietak printze eta pritzen kontuak atsegin dituzten nostalgikoen tzat une gozagarria igarotzeko aproposa, halaber. Ernst Marischkaren Sissi izenburuko trilogia arrakastatsuen hirugarren atala da, guztietan eskasena, dudarik gabe, eta berriro Romy Schneiderren antzezpenak animatua. Eztitsua da, aurreko atalak bezala, oso erromantikoa, sentikorra eta malakoren bat isurtaraziko dio bati baino gehiagori ziurrenik. Argumentua, Marischkak berak idatzia, gertakari erreal batean oinarritua dago.

■ SHANGAI SURPRISE.

Madonna abeslaria eta Sean Penn aktore eta zuzendaria bikote ziren garaian filmatua, abenturazko film exotiko garestia baina kaskarra da, argumentu tuntun bati eusten dion zinta arrunt eta baztergarria. Bikotearen luzimendurako sortua dela asko igartzen zaio, eta tira, gaur egun Madonna pasatuak Penn gaztearekin izandako harreman zail hori erabat ahaztuta daukagunez, ez gaituzte euren istorioek erraz erakarriko.

■ EL IMPERIO DEL MAL.

Hollywood aldean gangster-en istorioen moda berpizteko saiaketa egin zuten joan den hamarkadaren amaieran eta honen hasieran, eta, beste zinta arrunt batzuen artean, Christian Slater modakoaren luzimendua baizik bilatzen ez duen zinta komertzial arrunt hau sortu zuten. Gaztetxoei zuzenduta dago, batik bat, eta horregatik, hain zuzen, gaztetxoak dira filmeko protagonistak nagusiak.

■ EL PADRE DE FAMILIA.

Leslie Caron eta Nino Manfredi

Siegelen bihurrikeria eroenean
Carmen Sevilla izarra

■ AVENTURA PARA DOS. Don Siegel prestijiozkoak Espainian Benito Perojo ekoizlearen babespean egindako ekoizpen hau zaharkitua geratu da eta, egia esanda, ez du interes handirik, zuzendari horren jarraitzaile sutsuentzat ez bada. Horiek ere berehala ohartuko dira ez duela zinemagile horren ondorengo lanekin zeri-kusirik. Siegelek, hain zuzen, Clint Eastwoodekin elkartu eta Harry poliziaren abentura ederrak pantailaratu aurretik filmatu zuen, besteak beste, Carmen Sevilla gazte bat emakumezko rol nagusirako deituz.

Les étrangleurs de Bombay

1959, Terence Fisher, 75 m.

♦ ♦ ♦

09:00 C+(f)

El arrecife

1995, Robert Alln Ackerman, 91 m.

♦ ♦

10:00 T5

Aventura para dos

1957, Don Siegel, 92 m.

♦ ♦

11:00 La2

Decisión familiar

1998, Craig M. Saavedra, 91 m.

♦ ♦

16:15 T5

La dernière preuve

1997, Randal Kleiser, 100 m.

♦ ♦

21:00 C+(f)

Juramento hipocrático

1997, Jim Abrahams, 90 m.

♦ ♦

22:00 T5

El destino de Sissi

1957, Ernst Marischka, 91 m.

♦ ♦ ♦

22:25 ETB2

El imperio del mal

1991, Michael Karbelnikoff

♦ ♦

22:30 La2

Sud

1998, Chantal Akerman, 70 m.

♦ ♦

22:50 Arte

Shanghai Surprise

1986, Jim Goddard, 92 m.

♦ ♦

00:05 ETB2

Simone barbès ou la vertu

1979, Claude Treillhou, 75 m.

♦ ♦

01:10 Arte

El gendarme en Nueva York

1965, Jean Girault, 94 m.

♦ ♦

02:10 A3

El padre de familia

1967, Nanni Loy, 106 m.

♦ ♦

03:00 La2

Sin tiempo ni ley

1984, James Frawley, 71 m.

♦ ♦

04:30 T5

♦ TXARRA

♦ ♦ ESKASA

♦ ♦ ♦ BALEKOA

♦ ♦ ♦ ♦ ONA

♦ ♦ ♦ ♦ ♦ BIKAINA

Sissiren trilogiako azken filma eskainiko dute ETB2an: *El destino de Sissi*.

aktore ahaztuek protagonizatutako umorezko zinta arrunta da, ikusi bezain laster ahaztu egiten diren horietakoa, alegia. Protagonistek gerra osteko egun gogor eta latzetan biziko

duten egoera zailaren lekuko izan nahi baduzue, hona aukera. Anekdotak gisa gehituko dut Ugo Tognazzi ezagunak bigarren mailako rola antzezten duela.

ETB 1

07:10: Pastoral: San Mixel Garikoitz.

07:50: Euskal Herritik.

08:20: Bertatik bertara.

09:00: Superbat. 'Jetsondarak', 'Sinbad Gaztea', 'Inurri atomikoa', 'Pot-tokiak', 'Hirukiak', 'Candy Candy', 'Karate Kid', 'James Bond Gaztea', 'Mugaren lilara'.

12:55: Iparraldearen orena.

13:05: Pantera arrosa.

13:30: Gaur egun. Albistegia.

14:05: Scooby Dooren misterioak.

14:30: Bertatik bertara.

15:10: Goenkale.

15:50: Bidaide.

17:10: Gure familia eta beste piztiak. Telesaila.

18:10: Gizon traketsak.

18:45: Euskal Herritik.

20:00: Beakmanen mundua.

20:30: Gaur egun.

21:05: Goenkale.

22:30: Hondarribiako alardea.

00:05: Nazioarteko Futbola: Eurokopa 2.000. Italia-Danimarka.

01:45: Gure lanbide zaharrak.

02:15: Rockazoka.

02:45: Sikofonia.

03:50: Beni eta Marini.

04:20: Benta berri.

04:45: Azken erromantza.

05:35: Ikusgela.

06:20: Gure hirien itzala.

06:45: Amama sukaldari.

07:00: Urak handi.

ETB 2

08:45: Del país de los vascos.

09:15: La botica de la abuela.

09:35: Forum.

10:10: Entre 2 fuegos.

11:05: La hora de Mari Pau.

12:10: La buena vida.

12:35: Patrulla de rescate.

13:35: Ned y Stacey.

14:00: La niñera.

14:28: Teleberri.

15:40: Lo que faltaba.

18:05: Pensacola.

18:50: Cinco en familia.

19:40: Pacific blue.

20:25: Da la talla en la pantalla.

20:58: Teleberri.

22:00: Zinema.

El destino de Sissi.

Zuzendaria: Ernst Marischka. Aktoreak: Romy Schneider, Karl Heinz Böhm. 1957.

00:05: Zinema.

Shanghai Surprise.

Zuzendaria: Jim Goddard. Aktoreak: Sean Penn, Madonna. 1986.

01:50: La noche fantástica: Más allá del límite. En la Zona.

03:15: Lo que faltaba.

05:20: Amaiera.



irratia ♦

Euskadi Irratia. Goizean Behin saioaren barruan Harkaitz Canok bere komentarioa egingo du goizeko 10:00etan. Ondoren, Silbana Huegun dietistak egingo du bisita, eta elikadurari buruzko oinarritzko kontzeptuak argituko ditu. Argaltzeko balio zuten bost botikaren erabilera debekatu dutela eta, hainbat farmaziatara joko dute erronda bat eginez. Debekua martxan jarri den ala ez jakiteko. 11:00etan 9.9.9.9 efektuaren gaia jorratuko dute, efektu horrek

ordenagailuetan izan dezakeen eragina aztertuz. Ondoren, Manu Narbaezi elkarritzeta egingo diote, eta 12:00etan Andoni Aizpuruk eguraldiaren berri emango du egunero egiten duen moduan. 12:15ean entzuleek parte hartzeko aukera izango dute, irratitik egingo dizkieten galderei erantzunez.

Molotoff Irratia. Uda garaian beti egiten duten moduan, goizeko 10:00etan hasiko

da Molotof irratia programazioa. 11:00ak bitartean musika entzuteko aukera izango da. 11:00etan hasi eta 13.00ak arte Hamaiketoff izeneko magazinaren txanda izango da. Magazine honetan gai ugari jorratuko dituzte, musika eta elkarriketak tartekatuz. 13:00etatik aurrera musikak beteko ditu orduak. 21:00ak artean ez dute estilo jakin bateko musika soilik emango. 21:00etan Afonia saioan punky musika entzun ahal izango da.